



## San Sebastian Eguneko ospakizun ugari eskualdeko hiru herritan

**EKITALDIAK** ▶ Askotarikoak izan ziren goiz-goizetik atzokoan Leaburun, Berastegin eta Orendainen

**USADIOA** ▶ Aspaldiko ohiturari jarraituz antolatzen dute eguna, eta urteroko ekintzak egiten dituzte ▶ 7



Txistulariek elizarako bidea hartu zuten atzokoan Orendainen; meza ospatu zuten basilizan. NEREA URBIZU

### TOLOSALDEA ▶

## Jaurlaritzak telebista lizentziak banatuko ditu Tolosaldean

Dekretuaren zirriborroan ez du  
euskarazko katerik bermatzen ▶ 2

### TOLOSA ▶

## Ttentek, 25 urte aisialdiari eskaintzen

«Gazteen eskariz sortu  
zuten aisialdi taldea»  
urteurrena prestatzen  
hasia da honezkero ▶ 3



Ttentek-eko partaideak. HITZA

### TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶

## Berria Txapelketan ariko dira Leitzakoak eta Bidegoiangoak

Gaur-biharretan ekingo diote lehiari  
pilotariek Altzan eta Beotibarren ▶ 5

**NEREA**  
1962

Errementari kalea z/g  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 16 30  
**LENTZERIA**

**MERKEALDIA**

%40      2x1      %30

Kamisoiak, pijamak,  
neguko batoiak, kamisetak...

## KOMUNIKABIDEAK ▶



Datozen egunotan kaleratuko du Kultura Sailak tokiko telebistak arautzeko dekretua. Euskarazko katerik ez du bermatzen zirriborroan. HITZA

## Eskualdeko telebistarik ez?

Eusko Jaurlaritzak Tolosaldeko barrutian lizentziak banatuko ditu, baina dekretuaren zirriborroan ez du bermatzen euskarazko katerik

## ERREDAKZIOA

**E**usko Jaurlaritzaren Kultura Sailak tokiko telebista digitalak arautzeko behin betiko dekretua hurrengo egunetan kaleratuko du, eta gero Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hamabost barrutitan lizentziak emateko lehiaketa egingo du; Araban bi, Bizkaian sei eta Gipuzkoan zazpi. Barruti horietako bat da Tolosaldea. Eremu bakoitzari lau telebista kate dagozkie eta 10 urterako balioa izango dute emisio baimenek. Dekretu zirriborroaren arabera, lau kate horietako bat publikoa izateko aukera dago, «baina betiere udal bakoitzak onartu egin beharko du kate hori nahi duela», abenduaren hasieran, zirriborroaren aurkezpenean esan zutenez.

Eusko Jaurlaritzak dio tokiko telebista digitalei ezarri dien «helburu eta ezaugarri nagusiatariko bat euskararen presentziarena» dela, eta euskarak, «lehenasunezko lekua izan dezan», neurriak aurreikusitu dituela. Euskararen presentzia ezartzean, udalek kudeatutako kateetan euskarazko programazioak, gutxienez, erdia hartu beharko dute. Eta subjektu pribatuek kudeatutakoek, berriz, euskara, emisioa-

## EUSKARA

**Euskal Herriko telebista kateetan euskararen lekua oso txikia da: zazpi katek soilik jarduten dute**

ren hasieran, barrutiko euskaldunen indizearen %70ekoa dela bermatu beharko dute, hemendik 10 urtera gaurko errealitate soziolinguistikora iristeko. Horren arabera, Donostian, adibidez, %26,5ekoa litzateke euskararen presentzia, eta hori, Jaurlaritzaren ustez, «presentzia duina» edo «euskara lehenestea» da. Kultura Sailak, azken batean, esan du «gaztelania hutsezko tokiko telebista digitalari atea itxi» zaiola, baina ez udalen eta ez subjektu pribatuen artean, dekretu zirriborroak ez du bermatzen euskarazko katerik inongo barrutitan. Izan ere, Jaurlaritzak ez du egin erreserbarik euskara hutsean emittitzeko, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak tokiko telebistak euskararentzako aukera eta normalkuntzarako tresnatzat dituen arren. Horretaz gain, «ia-euskaldunak» ez ditu kontuan hartu euskaldunen

neurria ezartzeko orduan, eta horrek telebista lokaletan euskararen presentzia ez haztea esan nahi du.

Dekretu zirriborroari hainbat alegazio sartu dizkiote eragileek; haien artean, Euskarazko Komunikazio Taldeak (EKTK; horko enpresa da Hitzetako bazkide Bertako Hedabideak). EKTK, euskaldunak %75etik gora diren demarkazioetan lau kateak euskara hutsezkoak izateko eskatu du; euskaldunak %50-%75 bitartean direnekoetan, gutxienez, hiru kate euskara hutsean eta bestean euskarazko programazioa kuota sistemaren arabera finkatzea; %25-%50 bitartean diren eskualdeetan, gutxienez, bi kate euskaraz; eta, euskaldunak %25era iristen ez diren barrutietan kate bat euskaraz.

## Erdarazko enpresen aldekoa

Gaur egun 30 telebista lokal inguru daude Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Askok Espainian aritzen diren komunikazio talde handiekin loturaren bat dute —Vocento, Prisa eta Local Media enpresek—, eta gaztelaniaz emittitzen dute. «Komunikazio talde handiek hiriburu eta herri handietan banatuko

diren lizentziak lortu nahiko dituzte, eta horien interesak ez daude hizkuntz normalizazioan kokatuak», esan du Edorta Arana, EHUko irakaslea. Euskal Herrian euskaraz jarduten duten zazpi telebista kate baino ez daude. Kanal ertaintan, berriz, oso txikia da euskararen lekua; %10ekoa, batez beste. Dekretuak aurrera egiten badu, tokiko telebista kate guztiak, gutxienez, programazio propioa lau ordu eskaini beharko dituzte —hor barruan, albistegi lokalak— eta asteen 32 ordu. Jaurlaritzaren dekretuak dio, euskarazko telebisten kasuan, ekoizpen propioa erdia izan daitekeela eta beste erdia tokiko beste telebista batzuekin elkarlanean ekoiztutakoak. Hala ere, hori «ekoizpen maila altua» dela diote gaur egungo euskarazko telebistek, eta «enpresa indartsuenen aldeko irizpideak» dela. Hau da, erdarazkoen aldekoa.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO Hitzaren helburua (eskualdeko euskarazko komunikabideen sarea osatzen joatea da). Hala, enpresaren administrazio kontseiluak tokiko telebista digitalaren gaia aztergai izan du azkeneko hilabeteetan eta lehiaketan lizentzia eskatu edo ez aztertze asmoa dauka.

## TOLOSA ▶

### Berritze lanak hasiko dituzte Zerkausian eta Solana kalean

Segurtasun hesia ezarriko dute Solanan eta Zumalakarregin astelehenetik aurrera

## ERREDAKZIOA

Zerkausia berritzeko eta Solana kalea urbanizatzeko obrak direla eta, hilaren 23an, astelehenarekin, segurtasun hesia jartzen hasi behar dute. Hesi honek, bategatik, galtzada zati bat hartuko du Solana kalean, eta, bestetik, Zumalakarregi kalearen aldetik dagoen oinezkoen guneko zati bat. Kontuan izanik segurtasun hesi honek galtzada estutuko duela, arazoak gutxitzeko, Solana kalean galtzada berdinu egingo dute espaloiarekin. Ondorioz, egun horretatik aurrera norabide bakarra izango du.

## TELEFONOAK ▶

#### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Iruira. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.
  - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
  - ▶ San Esteban: 006800
  - ▶ Gernikako arbola: 006900
  - ▶ Amarozko dispen.: 672637
  - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
  - ▶ DYA: 672536
  - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
  - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930
- ▶ Garraioak.
  - ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzarano autob.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- ▶ Besterik.
  - ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurrarmendi egotza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

AISIALDIA ▶

# 25 urte aisialdian

**Gazteen eskariz sortu zuten Ttenttek aisialdi taldea; hastapenetatik tinko dirau**


Normalean urtero antolatzen dituzten udalekueetan primeran pasatzen dute guztiak; bai begiraleek eta baita haurrek ere. HITZA

**NEREA LIZARTZA**

Ikasturte honetan zilarrezko ezteiak ospatuko ditu Tolosako Ttenttek aisialdi taldeak. Inox Urbistondo abadea izan zen sortzaileetako bat; Santa Klaran lan ugari edukitzen zuen egiteko eta lagundu asmoz, bizpahiru gazte hasi zitzaizkion joaten. Arratsaldero elkartzen ziren eta meriendak, hizketaldi luzeak, jolasak... egiten zituzten. Baina egunetik egunera abadeari laguntzea aitzakiatzat hartuta Santa Klarara joaten zen gazte kopurua gero eta handiagoa zen; taldean eta giro ederrean arratsaldeak pasatzea zuten xede guztiak. Hogeita bost lagun ingurura iritsi zirenean, erabakiren bat hartu behar zutela ikusi zuten: gazte taldeak ondo funtzionatzeaz gain, giro aparta zuten ez euren artean, Ttenttek aisialdi taldea sortzea irizti zuten irtenbiderik egokiena.

Gazte mordoak elkartzen zirenez, Santa Klara utzi beharrean aurkitu ziren; San Frantzisko elizaren atzeko lokalak izan ziren irtenbiderik hobereena Urbistondo eta bere neska-mutilentzat. Taldearen gaineko analisia egin ostean, heziketa proiektu bat martxan jarri zuten. Ondoren, monitoreak izendatu zituzten eta urte batzuren buruan haurrak monitore izatera pasatu ziren. Hala ere, Ttenttek taldean haur izatetik monitore izatera pasatzeko ur-



Duela 25 urte Ttenttek-eko kideak eta Inox Urbistondo sortzailea, Mutilo-ara egindako irteera batean. HITZA

tebeteko prozesu batetik pasatu beharra dago, «babes taldea» deitzen dienetik, alegia. Urte horretan zehar, monitorek taldearen funtzionamenduari gainera eskolak ematen dizkiete babes taldean daudenei. Prozesu hau errepikatuz egin da belaunaldiz belaunaldi, egungo egoerara iritsi arte.

Ikasturtea bi lauhilekotan banatzen dute: lehenengoa urritik Inauteriak bitartekoa da eta bigarrena, berriz, Inauteriatik maiatz bitarteko tartea. Bi garai horietan zehar

hainbat ekintza egiten dituzte taldekideek. «Haurrak hezteko balore propioak dauzkagu, giza-kristau bezala identifikatzen ditugunak», azaldu dute Ttenttek taldeko begiraleek. Gaineratu dute, «berez eliza barruko taldea garen arren, elizaren gainetik nahiko burujabekak gara».

Ekintza guztiak, dena den, helburu batzuk kontuan izanda antolatzen dituzte. Edonola ere, helburu horiek taldeko karguaren arabera banatzen dira; izan ere, begiraleentzat helburu batzuk daude, hau-

rrerentzat beste batzuk eta babes taldean daudenentzat azken batzuk. Natura babestea eta errespetatzea, euskal kultura sustatzea, giza harremanak hobetzea, haurrek nortasun propioa garatzea... dira Ttenttek-ek dituen helburu nagusiak. Egiten duten ekintza orotan xede horiek kontuan izaten eta betetzen saiatzen dira.

Hala ere, lehen lauhilekotan helburu horiek bete ezean, huts egiten duten alorrak sakonago lantzen saiatzen dira, funtzionamendua pixka bat alda-

tuz eta egoerara egokituz. Larunbatero elkartzen dira taldekideak euren egoitzan. Lauhilekotan behin irteera bat ere egiten dute; «hau da haurrek gehien atsegindutena», azaldu dute begiraleek. Inauterietan konpartsa ere hutsik egin gabe atera ohi dute; abenduan hasten dituzte entseguak eta otsailarako prest egoten dira. «Hau da gure ekintzarik indartsuena», diote. Gabonetan kabalgata antolatzen dute Tolosako gainontzeko aisialdi taldeekin batera. Udan udalekuek joaten dira; edonola ere, ekintza hau izena ematen duten haur kopuruaren arabera izan ohi da. Garatze bidean dauden herrialdeetara laguntza txiki bat bidaltzen ere saiatzen dira gutxienez lauhilekotan behin; horretarako, urtean pare bat asteburutan Tolosako azokan postua jartzen dute eta haurrek euren jostailuak edo arropak saltzen dituzte, ateratzen duten dirua Hirugarren Mundura bidaltzeko.

«Nahiko talde txikia da; berrogei haur eta bost begirale inguru gaude», azaldu dute begiraleek. Hogeita bost urte hauetan zehar, urte jendetsuak pasatu dituzten arren, taldea kolokan egon den urteak ere izan dituzte. «Hirukide sortu zenean, haur asko gure taldea utzi eta beste talde batean sartzen hasi ziren; sei haurrekin soilik gelditu zitzaigun taldea», azaldu dute arduradunek.

Hala ere, krisirik handiena izanik ere, aurrera jarraitzeko apustua egin zuten; urte txarren ondoren, hobeagoak etorriko zirela irizten baitzuten. Horrela izan da, gainera; egun, egoera hori guttiz gairitu ez badute ere, taldea berriro ere handitzen ari dira pixkanaka-pixkanaka.

**Urteurrena prestatzen**

Ikasturte honetan hogeita bost urte betetzen dituzten taldeak, ekintza anitz ari dira antolatzen. Batzuk jadanik eginak dituzte; duela aste batzuk taldean parte hartzen duten begiraleek afaria egin zuten. Haatik, oraindik asko dituzte egiteko; Ferialekuan afari ireki bat ari dira prestatzen herriko edonori zuzendua, Realeko jokalarri batzuekin hizketaldi bat ere proiektu horien artean dago, kontzertu batzuk egin nahi dituzte, hainbat gairen gaineko hitzaldiak ere antolatzen ari dira...

Guztia gogoz eta ilusioz ari dira prestatzen Ttenttek taldeko begiraleak; hogeita bost urte hauetan zehar egin duten bezala, taldeari duten hobereana eskainiz.

## ZIZURKIL ▶ HIRIGINTZA

# Ubareko aurreproiektua azalduko dute

Datorren asteartean egingo dute bilera Atxulondo kultur etxean, 19:00etan

## ERREDAKZIOA

Ubare biziberritzeko prestatu duten aurreproiektua «gertutik eta xehetasunez» ezagutzeko bilera deitu du Zizurkilgo Udalak datorren asteartean, hilak 24, 19:00etan, Atxulondo kultur etxean. Auzoa hobetzea helburu duen aurreproiektu honen prestaketa prozesuan 80 auzokide baina gehiagok hartu dute parte, Udaleko ordezkari politiko eta teknikariek batera elkarlanean.

Elkarlan esperientzia honi pasa den urteko irailean eman zitzaion hasiera. Udalaren borondatez eta ekimenez, auzokideei hiru elkarlan bilera ospatzeko deialdi luzatu zitzaizkien, helburu jakin eta komun batekin: Ubareren eraberritze proiektuak kontuan hartu behar litzuzkeen oinarriko irizpide eta gida-lerroak guztien artean landu eta finkatzea. Aipatu behar da Izartu programaren esparruan Eusko Jaurlari-tzatik finantzaturako proiektua dela, eta beste ekintza batzuei loturik planteatzen dela, Oriia ibaiaren berbidertzea, kasu.

«Giro jatorrean, eta aldarre erakitzailez», auzokide, Zizurkilgo Udaleko ordezkari politiko eta udal teknikariek artean landu ziren, esate baterako, ondorengo gaiak: Oriia ibaiaren ondoan eraikiko den oinezko-entzako pasealekua; gaur egungo errepidearen lekualdaketa auzoaren atzeko partera; auzo barneko aparkalekuen ordenamendua; bidegorriaren ibilbidea; hondakinen bilketarako ontzien tokialdaketa...

Horren guztiaren ondorioz, dagoeneko prest dago Udaleko hirigintza atalak prestatu duen aurreproiektua. «Bero-nek barne hartzen ditu, gainera, elkarlan bileretan adostutako proposamenak», azaldu du Udalak. Esan bezala, aurreproiektua datorren asteartean emango da ezagutzera teknikariek eskutik. Bilera honetarako gonbita Ubareko auzokide guztiei luzatzen die Udalak, «nolabait orain hiru hilabete guztian artean eginiko lanaren emaitzaren itzulpena baita».

Esperientzia partehartzaile honek, gainera, «Udalaren eta auzoaren arteko, eta baita ere auzokideen arteko harremanak estutzeko aukera eskaini du, auzoaren eta Zizurkilgen onurarako elkarlana bultzatuz». Horren adierazgarri, Ubareko zenbait bizilagun animatu dira udal mailako beste proiektu batzuetan parte hartzera: esate baterako, Zizurkilgo Agenda 21 edo Arau Subsidiarioen berrikusketara prozesuan jardungo dute.

Prozesu honek Zizurkildik kanpora ere izan du oihartzuna, «bere izaera berritzaileagatik eta partehartzearen alde eginiko apostuagatik». Bakeazek gonbidaturik Maria Angeles Lazkano Zizurkilgo alkateak Ubareko esperientzia aurkeztu zuen Bilbon izan berri den *Hirigintza eta partehartze jardunaldian*. Berarekin batera, Donostiako (Gipuzkoa) eta Vilafranca del Penedes-eko (Katalunia) ordezkariak izan ziren euren esperientziak azalduz.

## ASTEASU ▶ IKASTAROAK

## Pilates ikastaroa herriko kiroldegian

Pilates ikastaroa antolatu dute Asteasuko kiroldegian, otsailetik ekainera bitartean. Ostegunetan izango litzateke, 18:00etatik 18:50era, 50 euroko kostuarekin. Izen ematea kiroldegian bertan egin behar da, hilaren 27a arte.

## VILLABONA ▶ HIRIGINTZA

## Flemingo aparkalekua ezingo da erabili

«Etzitik, hilaren 23a, 08:00etatik aurrera ezin izango da aparkatu Flemingo parkean, eraikuntza lanen hasieragatik», dio Villabonako Udaltzaingoa. Ordez, Berria 1. Olaederra kiroldegia eta Sacemgo rotondako aparkalekuak daude.

## VILLABONA ▶

## Ehiza txikiko txapelketarako izen ematea

Loatzo elkarteak ehiztari guztiei jakinarazten zaie Emango otsailaren 4ean, ehiza txikiko txapelketa egingo dela. Lehiaketa honetan parte hartu nahi duten ehiztariak Eizmendi Armategiaren eman behar dute izena, otsailaren 2a baino lehen.

## IRURA ▶ GIZARTEA

## Odol ateratzeak, etzi, Herri Eskolan

Odol ateratzeak egingo dira etzi, hilaren 23, Irurako Herri Eskolan, 19:00etatik 21:00etara. Antolatzaileek Irura Urdaegiaren eta Irurako Okindegiaren laguntza eskertzen dute.

## ALKIZA ▶ AGENDA 21

## Herri batzarra hilaren 27an

Alkizako Agenda 21aren baitan herri batzarra deitu dute, etorkizunean aurrera eramango diren ekintzen lehentasunak definitzeko. Batzarra hilaren 27an izango da, 21:00etan, Kultur Etxean.

## GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

## Abenduaren 31ko manifestazioa

2006ko urtarrilaren 17an TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkarian Asteasuko Udalar buruz Naroa Gerestak egindako idatziarekin bat eginez, zera adierazi nahi nuke.

Aiztondo bailarako udalarekin eta Etxerat elkarteak antolatutako manifestazio ixil hori Ernio mendi magaleko Aiztondo bailaran urte-roge egiten da abenduaren 31n, giza eskubideen alde *Euskal presoak Euskal Herrira* lelopean. Bertan 400 lagun inguru bildu ginen, Amasa-Villabona, Zizurkil, Aduna, Larraul, Alkiza eta Asteasuko herritarrak, eta baita ere herri hauetako alkate eta zinegotziak, Asteasuko izan ezik. Non ziren?

Aiztondo bailarako 6 herritar dituzte preso Espainiako eta Frantziako estatuek beraien kartzeletan dispersatuta, eta horregatik herritar hauek dituzten eskubideak errespetatu dituzten eskatuaz egin genuen manifestazioa. Asteasuko Udala ez al dago Aiztondo bailarako herritar hauen eskubideak errespetatuak izan daitezkeen aldarrikapenarekin ados? Bailara honetako beste udalak ez bezala pentsatzen al du Asteasuko Udalak?

Zer politika egiten du Eusko Alkartasunak gai honen inguruan? Zeren jakin badakigu beste herri askotan ados dagoela, Asteasun zergatik ez? Asteasuko herritarrek parte hartu zuten manifestazioan, baina Udalaren babesarik gabe. Gainera, ez da gai bakarra non Asteasuko Udala kanpo gertatzen den. Zer dugu badaberezia

honako hau? Edota gainontzeko bost udalak gara arraroak...

Baita ere esan 18/98 auzian, epaiketa politiko eta lotsagarri honetan baditugula bailara honetan hiru auzipetu: Nekane Txapartegi (Asteasu), Joxe Mari Olarra (Amasa-Billabona) eta Mikel Egibar (Zizurkil). Auzipetu hauei babesa emanez ere onartu genuen mozio bat eta egin genuen agerraldi bat Gurea zineman, baina han ere ez zegoen Asteasuko Udala nahiz eta auzi horretan bertan epaitua izango den Nekane Txapartegi (asteasuarra). Besterik gabe esan ez dagoela ikusi nahi ez duen itsua eta entzun nahi ez duen gorra bezalakorik. Pello Zelarain, Iñigo Guridi, Ander Geresta, Emilio Salaberria eta Oskar Zelarain Euskal Herrira! Aiztondora! Etxera!

IÑAKI ARISTETA,

ADUNAKO ZINEGOTZIA ▶ ADUNA

# lagunen txokoa

## ▶ HITZAKO harpidedunen artean zozketatutako

### UDABERRI DANTZA TALDEAREN KAMIXETEN irabazleak:

- ▶ PAKITA ETXEBERRIA SEÑORENA (IBARRA)
- ▶ LOURDES GARATE ARA (TOLOSA)
- ▶ IDOIA MENDIBIL LOPETEGI (IBARRA)
- ▶ KARMEN IRAETA ARSUAGA (TOLOSA)
- ▶ JUAN CARLOS OTERO GABIRONDO (ANOETA)
- ▶ IZASKUN IRAOLA ELOLA (BIDEGOIAN)
- ▶ IZASKUN JAUREGI SAIZAR (ANOETA)
- ▶ IZASKUN GOIKOETXE GOIKOETXEA (ALEGIA)
- ▶ ARANTXA UGALDE ZABALA (TOLOSA)
- ▶ NEKANE JAUREGI JAUREGI (TOLOSA)

Irabazleak HITZAK Tolosako Araba Etorbidea 5ean duen egoitzatik pasa daitezke sariaren bila.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero





PILOTA ▶

# Berria Txapelketan ariko dira Leitza eta Bidegoiango Aurrerak

Gaur-biharretan ekinen diote txapelketari Altzan eta Beotibarren, Usurbil eta Berrizko taldeen aurka

JAIONE ASTIBIA

Aurreko asteburuan hasi zen jokatzeko, baina honetakoan dute beren estreinako parte-hartzea Leitzako Aurrera eta Bidegoiango Aurrera-Saiatz pilotari eskolek, [www.berria.info](http://www.berria.info) delako pilota txapelketa honetan.

Gaur arratsaldean bertan dute lehendabiziko norgehiagoka leitzarrek, 16:30ean, Donostiako Altzako pilotalekuan; Usurbilgo Andazpe Peña Pagola taldeko pilotariak izanen dituzte aurrez-aurre Leitzako eskolak: kadeteetan, Aldun-

tzin-Berjera; gazteetan, Sagastibeltza-Lansalot; helduetan, Iriarte-Betelu.

Aldiz, Aurrera-Saiatzek bihar du saioa, 10:00etan, Beotibarren, Berrizko Oizpe eskolaren aurka: kadeteetan, Oartzabal-Agiriano; gazteetan, Telletxea-Galarraga; eta helduetan, Renobales-Huarte.

## Bestelakoak

Beste partiduak ere badituzte, ordea. Leitzarrek, Euskal Herriko Txapelketan esaterako, neskak plan ari beharrak dira Lizarran, Agirre eta Aristorena,

Lizarraren aurka. Eta bihar 10:00etan, 5. partiduan, 22 urtez behikoetan ariko da Betelu.

Aurrera-Saiatzek ere Beotibarren jaialdi ugari dituzte. Gaur, 10:30ean, Udaberri torneoko bi partiduez gain, Euskal Herrikoan ere izanen dute. Eta bihar, 17:00etan beste hainbeste.

Amezketako Zapzi iturrikoak herrian bertan, 17:00ean dira aritzekoak gaur, Udaberri eta Euskal Herriko Txapelketetako partiduetan. Baina, era berean, Ortuellara eta Zumarragara, eta bihar Lemoara eta Zornoztzara ere joan beharrak dira.

LEITZA ▶ PILOTA

## Ibai Bengoetxeak eskuko behatz ttikia hautsi du

Gaztela eta Leongo Irekiko final-laurdenetan ari zen; igandeaz geroztik lesionatuta dago

ERREDAKZIOA

Ibai Bengoetxeak, Bengoetxea VII.ak, eskuin eskuko behatz ttikia hautsi zuen aurreko igandean Sorian (Espainia), Gaztela-Leongo Irekiko final-laurdenak jokatzeko ari zela.

Altuna lagun zuela, jokatzeko ari zirela, sake bati boleaz erantzuterakoan suertatu zen leitzarrak min hartzea. Ondorioz, ez du sariketa horretan parte hartzen jarraitzerik izanen, eta dagoeneko Frontisek bere ordezkoa izendatu du: Karmelo Ariznabarreta.

Edozein moduz, aitatzekoa da partidu hura irabazi egin zutela, bi jokoa berenganatu baitzituzten, 10-6 eta 10-9ko emaitzekin, eta, noski, finalerdietarako pasea eskuratuta bukatu zuten lana.



Bengoetxea VII.a, leitzarra. HITZA

«Hilabete batean gutxi gorabehera geldirik egon beharko dut», adierazi zion Hitzari berak. Orain burni bat jarrita omen du behatza gelditu edukitzeko: «Gustura ari nintzen pilotan, lagun onarekin eta, baina...», zioen.

LEITZA ▶ IHOTEK

## Erletakoen kalejira, ihote aurrekoetan

J. Astibia ▶ Artzain eta ifudeek zirriak eta panpinak ederki astindu zituzten; txantxoek kolorea isurtzen zuten; kaldereroek zartari soina eta koplak; eta trikitilariak, txistulariak eta atabalariek auspoak eta makilak. Erletea eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek ere kalejira egin zuten atzo arratsaldean, herrian behetik gora ihoteen etorrera iragarritz bezala. Plazan dantzak ez ezik, herrira etorritako zingaroen ere euren zirkoko hainbat joko ere eskaini zituzten, hartza lagun zutela.

JAIONE ASTIBIA



LEITZA ▶

## Donostiako urketari bat Juana Mari Olano leitzarra

J. ASTIBIA

Herenegun gauean, Donostian San Sebastian Eguna lehendabiziko orduetako Danborradan Intxaurrendoko Artzak Ortzeok-eko 12 urketarik parte hartu zuten, perradak erabiliz ura garraiatzen zuten emakumeak.

Bada, Gaztelubideko barrika eta danbor jotzaileekin oholtza gainean aritu ziren urketari horietako bat Juana Mari Olano zen.



Ihote zoriontsuak opa dizkizue

LEITZAKO UDALAREN TELEFONOA

LEITZAKO UDALA

## IBARRA ▶ GIZARTEA

# Laguntza %1 izan dadin eskatuko dute

Sinadura bilketa egingo du misio taldeak datozen bi asteburuetan

IÑIGO TERRADILLOS

Ibarratik misio taldeak Hirugarren Mundura bideratzen duen laguntza %1 ekoa izatea eskatuko dio Ibarrako Udalarari. Horretarako, sinadura bilketa bat jarriko du abian datorren aste-

buruan, hilaren 28an eta 29an eta otsailaren 4an eta 5ean; San Bartolome elizaren aurrean jarriko dira sinadurak biltzen, larunbatetan 19:00etan, eta igandeetan 08:30ean, 10:30ean eta 12:00etan. Behin sinadurak bildu ondoren,



Hirugarren Mundurako laguntza handiagoa izatea eskatuko dute. HITZA

udalbatzari zuzenduko da misio taldea, 2006. urterako udal aurrekontuak egiterakoan, garapen bidean diren herrialdeek bizi duten egoera «larria eta zailtasunez eta gabeziez bete» kontuan izan dezaten eta, Hirugarren Munduko herrialdeentzako laguntzara %0,7 bideratu ordez %1 bideratzeko eskaria eginez. Horrez gain, aurrekontuen %1 ari dagokion dirua, «ibartar guztiok ematen dugun diru hori», Ibarrako taldeek bultzatutako proiektuak egitera bideratzeko eskatuko dute.

## Hondurasetik bisita

Bestalde, Hondurasetik etorritako misiolari baten bisita izango du bihar misio taldeak. Ibarratik Bilbora itzuliko da bihar.

## IBARRA ▶ GIZARTEA

## Santa Agedan parte hartzeko deialdia

I. Terradillos ▶ Ibarrako Hauspoa Kultur Elkarteak otsailaren 4an Santa Ageda eskea antolatu du, eta entseguak hilaren 31n eta otsailaren 2an 20:00etan udaletxearen azpialdean egingo dituztela jakinarazi dute. Bertan parte hartu nahi dutenek herriko elkarteetan nahiz ohiko tabernetan jarri dituzten zerrendetan izena emateko aukera izango dute, horretarako azken eguna hilaren 27a izango delarik. Hauspoa Kultur Elkarteak ekintza honetan parte hartzera animatu nahi ditu herritar guztiak. HITZA



## GIZARTEA ▶

## Euskarazko kartelak, erre daitekeen ala ez adierazteko

ERREDAKZIOA

Tabakoaren lege berriaren harira, Tolosaldeko kanpaina Kontseiluarekin eta Galiziaundirekin adostuta, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak kanpaina bat jarri du abian, herrietako taberna, ostatu eta elkarteetan erre daitekeen edo ez adierazten duten euskarazko kartelak banatzeko. Eskuratzeko, gipuzkoa2@uema.org edo 943 26 03 72 zenbakian.

## MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta  
Bataioak, Jaumartzeak...

*Jatetxea*

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

Beti alai  
*jatetxea*

Garaian  
garaiko janariak  
Arraikietan berezia



© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

## ARAMBURU

Salgai (Alegia). Apartamentua garajearekin, Berria.  
Salgai (Villabona). Guztiz berritutako pisua.  
Salgai (Tolosa). Pisua igogailuarekin Larramendi kalean 112m<sup>2</sup>. Bista zoragarriak.  
Salgai (Berrobi). Pisua, baratza eta babola. 168.000€  
Salgai (Tolosa). Pisua Laskorain kalean. Guztiz berritua.  
Salgai (Tolosa). Pisu zoragarria Laskorain kalean.  
Salgai (Tolosa). Lokalkomertzialak Nagusia kalean eta Belate ibilokien.  
Salgai (Tolosa). Garaiaak Ledor, Pedro de Tolosa eta Plaza Zaharreen.  
Alokatzeko (Arribas). 2ko pisuko pisua. Toki onetik 17km-tara.  
Alokatzeko (Amezketeta). 3ko pisuko pisua. atzainekin.  
Alokatzeko (Tolosa). Pisua Rondilla kalean.  
943 65 17 13 / 677 46 09 16

## iragarki laburrak ▶

### LANA

**Gidaria.** Gidaria behar da ADRarekin, Espainian eta Hego Euskal Herrian zeharreko garraiorako. Lan finkorako aukera handiak. 607 58 41 39.

### SALGAI

**Gidaria.** 4 hilabete dituen ardi txakurkumea salgai. Interesatuak deitu 943 68 32 58 telefono zenbakira.

## ▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Eztabaida.** Laster iritsiko dira Inauteriak, eta dagoeneko moztorroan pentsatzen hasiak izango dira batzuk. Zertaz moztortzea pentsatu duzu? Zein uste duzu litzatekeela aurtengorako moztorrorik egokiena? Sartu eta eman zure iritzia! ▶

## iragarki laburrak ▶

**Laborategia.** Plaza libreak: teknikariak, ikertegiko laguntzaileak, Eusko Jaurlaritzaren informazioa doan. 943 31 37 82.  
**Ohar garrantzitsua.** Urritasun fisikoren bat baldin baduzu, lor ezazu

lanpostu finkoa. %5 erreserbatua. Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Peioiak.** Obrak, gidariak, zabor biltzaileak, garbitzaileak. Udaleketarako. 943 31 37 82.  
**Gidariak.** Hurrengo lanpostuak Foru

Aldundirako. Kontratu mugagabea. 943 31 37 82.

**Suhiltzaileak, udaltzaingoa.** Plaza libreak udaleketearako. Informazioa doan. 943 31 37 82.  
**Garbitzaileak.** Lanpostu finkoak:

eraikin publikoak, ikastetxeak, erietxeak. Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informa zaituz. 943 31 37 82.  
**Presazkoa.** Haur zaintzaileak eta haur eskoletarako hezitzaileak behar

dira. 943 31 37 82.

**Administrari laguntzaileak.** Plaza libreak udaleketearako. 1.200 euro. Lanaldia: astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan. 943 31 37 82.

SAN SEBASTIAN ▶

# Ospakizun biribilak hiru herrietan

Hamaiketako nahiz askariekin hotzari erraz egin zitzaion aurre beste behin

NEREA URBIZU

Eguraldi hotz eta hezeak ez zuen atzoko jardunaldia zapuztu, eta urtero egiten duten moduan, San Sebastian egun bikaina ospatu zuten eskualdeko hiru herritan.

Leaburuko San Sebastian jaiak arratsaldean izan zuen hasiera. Horregatik, beste herrietan ez bezala, bertan gazte txoak eta haurrak ikusi ahal izan ziren. Arratsaldeko protagonistetako batzuk izateaz gain, herriko dantzariak ziren, eta saioa eskaini zuten meza entzun eta berehala. Euriak ez zuen dantza emanaldia zapuztu, dantzariak oso ongi aritu baitziren *sagardantza*, *fandangoa* eta *arin-arina* nahiz *banakoa* dantzatzeko. Zazpi neskatila aritu ziren horretan. Haien inguruan jende dezente bildu zen. Ondoren, urtero bezala Zazpi Bide elkartearen merienda egin zuten leaburuarekin.

Berastegin ere meza ospatu zuten 11:00etan, urtean behin erabiltzen duten basilizan, San Sebastianen, alegia. Aurten ez da eguraldia oztopo izan, hotza egin bazuen ere, ez baitzuen euririk egin, eta igotzea posible izan zen. Hamaiketako herriarrek prestatu zuten basilizan bertan, urtero egin ohi duten moduan, otordu goxoa jaso zuten. Jende multzo bat animatu zen basilizara igotzeko.

Orendainen 10:45ean hasi zuten eguna. Lainoak herriaren azpian zeudela, aguazilak suziarik bota zituen eta elizako ezkilak joka hasi ziren, egunaren hasieraren abisua emate-

ko. Tolosatik igotako txistulariak eta kaxa jotzaileak plaza-rik ermitarako bidea biribilketak batez alaitu zuten, betiko legez.

Baselizara iritsita, meza ospatu zuten, jende askoren aurrean; izan ere, ermita lepo zegoen, 80 bat lagun elkartu baitziren. Alkate lanak egiten dituen herriko bizilagunak, meza ondoan, herriko Kalea baserrian egindako obren berri eman zuten.

## Kalea baserria bedeinkatuta

Apezarekin batera, herriarrek baserrian egindako obrak ikusi ahal izan zituzten, apezak lekua inauguratzen zuten bitartean. Gogora dezagun baserrian egindako eraldaketak herriko baten bat inoiz beharretan egonean balitz harentzat izango litzatekeela, elbarritua dela, bere kasa baliotzen ez dena dela.

Kalean egindako obraren inaugurazioaren ondoren hamaiketako prest zegoen udaltxeko aretoa: salda beroa eta kroketak, besteak beste, izan zuten jangai hango 80 lagunek. Ondoren bazkarirako elkartutako 60 herriarrek ederki asko bazkaldu zuten herriko Eltxoak elkartearen. Beste behin ere, San Sebastian Eguna era berezian ospatu zuten orendaindarrek, usadioak agintzen duen moduan.

Eta ildo beretik, berriz ere, San Sebastian Eguna modu berezian igaro dute hiru herri hauetan, eta horrela egiten jarraitzeko asmoa dutela ezin ukatu.



**Orendain.** Udalebexean hamaiketako prestatu zuten herritarrentzat. Prestatutako lau mahaiak bete egin ziren. Jende asko hurbildu zen; lehengo urtean baino gehiago, diotenez. Salda beroa dastatzeko premia zegoen, herrian fresko samar egiten baitzuten. Ondoren, kroketak. NEREA URBIZU



**Berastegi.** Goizeko eguraldi jasangarriarekin San Sebastian basilizan jende andana bildu zen Berastegin. Mokadutxoak dastatzeko aukera izan zuten herritarrek han bertan. IÑIGO TERRADILLOS



**Leaburu.** Dantzariak saio polita eskaini zuten ermitaren atarian. Jendea inguruan, dantzariak txalo zaparradak jaso zituzten, merezi bezala. Ondoren, gustura askaltzera. N. URBIZU

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

**Gipuzkoan 50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

hilberriak ▶



**Patxi Altuna Bengoetxea**  
(Uztarriko ohorezko bazkidea)



«Euskara hire laguna»

**uztarria**

ADAPTIBO KULTUR KOORDINAGUNA

AZPEITIA, 2006ko urtarrilaren 21a





AGENDA ▶

DEIALDIAK

**Alegia.** Zazpi Astoren Gainean bertso eskolak bertso afaria antolatuta du Intxurre elkartearen 21:00etan Aitor Mendiluze eta Amaia Agirreekin.

**Anoeta.** Otsailaren 5erako Basagain ehiza elkarteak antolatuta duen ehiza txiki txapelketarako izen-ematea 686 257508 edo 943 332133 telefonoetan 20 eurotan.

**Berrobi.** Kutxaren laguntzarekin eskulanak eta lore sendagaien ikastaroak antolatuta nahi ditu Udalak Etxolan. 943 326666 telefonora Miguel Arrietari deitu behar zaio edo udaletxera (943 683294).

**Ibarra.** Uzturperen Kultur Astean, haur festa Belabieta kiroldegian 11:30ean: gaztelu puzgarriak, euskaroeka... eta 18:00etan txokolata jatea plazan.

**Tolosa.** Kannon musika taldearen kontzertua, 22:30ean, Bonberenean.

**Villabona.** BECera joateko autobusa 15:00etan irtengo da Olaederra kiroldegitik.

**Tolosa.** Inauterietako karroza eta konpartsen izen-ematea zabalik dago Aranburu jauregian egin ahalko da otsailaren 10a bitarte.

**Tolosa.** 2006ko mendiko federatu txartela tramitatu daiteke Oargi mendi elkartearen asteartean, asteazkenetan eta ostegunetan 20:00etatik 21:00etara.

**Tolosa.** Peñascal fundazioak soldadura ikastaroa antolatuta du lanean ari diren langileentzako etengabeko formazio planen barruan, doan. Informazioa, 943 67 61 61 telefono zenbakian.

**Zizurkil.** Pilates, funky hip-hop, bertso eskola, automakillaje eta erromeriako dantzak ikasteko aukera ematen du Udalak. Izen-ematea, udal bulegoetan (943 693066).

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Areso. Goizueta, F. Loidi etxea. 112.  
Tolosa. Morant, R. Zabalarreta, 1.  
Telefonoa: 943 67 38 49.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Herriko txoko ezberdinak

## I. MARRAZKI LEHIAKETA ▶ Azken lau marrazkiak dira hauek: Jose Luis, Carlos Alfredo eta Sara tolosarrek eta Naroa ibartarrak egindakoak



TOLOSA ▶

Jose Luis Rodriguez Garzon (6 urte, Tolosa).

«Hau nire etxea da», adierazi du Jose Luisek bere marrazkiaren aldamenean. Uzturre margotu du, besteak beste, tolosarrak.



TOLOSA ▶

Sara Moreno Garzon (9 urte, Tolosa).

«Nik Tolosako alde onak eta txarrak egin ditut; ona, bidegorria jarri zutela eta txarra Eroski ondoan zegoen zuhaitza bota zutela».



TOLOSA ▶

Carlos Alfredo Moreno Garzon (11 urte, Tolosa).

«Marrazki honetan nire etxetik ikusitako paisaia bat agertzen da. Sakramentinoen eliza eta Laskoraingo patioa marraztu ditut», dio.



IBARRA ▶

Naroa Ezeiza Agirre (8 urte, Ibarra).

«Hau da nire herriko plaza, lekurik politena», esan du Naroa Ezeiza lagun ibartarrak bere herriko plaza margotzerakoan.

AGURRAK ▶



**URTE ASKOAN**  
Lorena Elola Leo.  
Gaur 5 urte. Zorionak familia guztieren partetik.



**URTE ASKOAN**  
Mikaela Zabala Goñi (Txarama).  
Gaur 84 urte. Zorionak familiaren partetik.



**ZORIONAK BIKOTE!**  
Izaskun eta Joxi.  
Ondo pasa zuen ezkontza egunean. Ebekoen partetik.

## HITZA, zorion agurren tarte

Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberririk... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:

Araba etorbidea, 5 behe - TOLOSA

Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.

Mila esker!